



## 9. KOSTUAK

Azkenik, gure enpresak izango dituen kostuak finkatzea ezinbestekoa da. Hasteko, kostu aldakorrak eta finkoak finkatzea behar da.

Aplikazio bat sortzerakoan eta play store edo app storen agertzea nahi bada, enpresari ordaindu behar zaio; horrek kostu finko bat gehitzen du kostuen zerrendara. Bestalde, publizitatea izatea nahi bada, agertuko den plataformari edo telebista kanalarari ordaindu behar zaio diru hori gure app-aren publizitatean inbertitzeagaitik; eta hau kostu aldakorrera gehitzen da.

Garestien arloan, erabiliko ditugun baliabide garestienak baliabide digitalak izango dira. Hala nola, aplikazioa sortzeko ordaindu beharreko kuotak (App Store- eta Google Play-en gure aplikazioa egoteko). Gainera, softwareak erosi eta moldatu beharrak ere diru nahikoa suposatuko digu.

Jarduera garestienei dagokionez, aplikazioa mantentzea eta gure aplikazioa promozionatzen dutenei haien parte ematea izango da.

Azkenik, taula batean kostuen egitura finkatuko dugu:

KOSTUAREN DESKRIBAPENA	INPORTEA
Google Play alta	25 €
App store alta	99 €
Software-aren diseinu eta moldaketa	12.500 € (10.000 € - 15.000 €)*

Kostu guztiak: 12.624 €

*\*Gure aplikazioa marketplace bat izanda, prezioak hortik egongo dira, horregaitik kostu guztiak kalkulatzekoan media erabili dugu. Dena den, benetazko prezioa ezagutzeko enpresari desarrollatzaileari gure ideia erakutzi beharko genioke*